BIZITEGI ERAIKINA — KOLON PASEALEKUA 13

D MAILA



Egilea eta data: Martin Dominguez; 1924

Deskribapena

Mehelinen arteko eraikina, behe oina eta jatorrizko sei goi oin dituena, azkena atzeraemana. Harlanduzko fatxada, hormigoizko begiratoki zentrala duena. Behe oineko harlanduaren zati bat harriz xaflatuta “berreskuratua”. Alde batzuk ikusten dira proiektuaren eta benetan eraikitakoaren artean (5. oineko begiratokia).

Babes erregimena

1. Erregimen orokorra:
   Plan Berezi honen D babes mailan integratzearekin loturikoa.
   Testuinguru horretan, fatxadaren tratamendua, bertako baoen konfigurazioa, instalazio, publizitate elementu, seinale eta olana eta abarren ezarpena, Plan Berezi honetako Ordenantza Orokorretako babes maila horretarako ezarritako gai horiek erregulatzen dituzten irizpide orokorretara egokituko da.
2. Berariazko erregimena.
   A. Babesetik kanpo utzitako kanpo elementuak edo zatiak: 6. goi oina, atzeraemana.
   B. Fatxadako elementu edo zati iraunkorrak: harlanduzko elementuak.
   C. Esku hartzeko beste irizpide zehatz batzuk:
      * Begiratokiaren tratamendua ordenantza orokor horietan ezarritako irizpideetara egokituko da.
      * Erregimen orokor hori arautzeko baldintzak betetzeari loturiko gainerakoak, hala badagokio.